



AGINDUA, SEGURTASUN SAILBURUARENA, 2013KO XXXXREN XX(E)KOA, EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO LEGEA BOSGARREN ALDIZ ALDATZEKO LEGE PROIEKTUA IZAPIDETZEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEN DIONA

Herritarrek askatasun osoz egikari dezaten gai publikoetan esku hartzeko eskubide konstituzionala aldian aldiko hauteskundeetan eta sufragio unibertsalez, funtsezkoa da parte hartuko duten hauteskunde prozesu hori gardena, segurua eta objektiboa izatea, baita hautes ordezkagarritasuna dakarten karguetara heltzeko prozesua berdintasun eta neutraltasun printzipioak errespetatuz gauzatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, prozesu demokratiko orotan nagusi izan behar duten printzipio horiek Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeiei buruzko Legean jasota daude (5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa). Euskal Herriko Autonomia Estatutuak, bakarreko eskumena esleitzen dio Euskal Autonomia Erkidegoari honako arlo honetan: Eusko Legebiltzarrari, Batzar Nagusiei eta foru aldundiei eragiten dien barruko hauteskunde-legeria, Estatutu honetan aurreikusitako moduan eta Estatutu honen 37. artikuluan xedatutakoaren arabera lurralde historikoei dagozkien ahalmenei kalterik eragin gabe.

5/1990 Legea onetsi zenez geroztik, lau aldaketa izan ditu, lauak Eusko Legebiltzarrak emandako beste lau legeren bidez onetsitakoak: 15/1998 Legea, ekainaren 19koa; 6/2000 Legea, urriaren 4koa; 1/2003 Legea, martxoaren 28koa; eta 4/2005 Legea, otsailaren 18koa. Aldaketa horiek guztiak, euskal hauteskunde legea errealitate politikora eta sozialera egokitzeko egin dira, indarreko legeriarekin bat eginez.

Aldiz, euskal hauteskunde legea indarrean sartu zenetik hona izandako hauteskunde prozesu autonomikoetako eskarmentuak argi eta garbi utzi digu legea eraberritzeko beharra. Urte horietako eskarmentuak ez ezik ondorio berera eraman gaituzte ere urte horietan guztietan espainiar estatuko Hauteskunde Araubide Orokorraren (5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa) oinarritzko arauetan izan diren eta euskal legerari eragin dioten aldaketek, Espainiako Konstituzio Auzitegiak sortutako dotrinak eta hauteskunde administrazioak eginiko proposamenek.

Hori horrela izanik, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organiko horretara egokitzeak, berarekin ekarri du Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeiei buruzko Legea aldatzea; izan ere, euskal legearen zenbait artikulua ez datoz bat lege organiko horretako zenbait artikulurekin, eta, bestalde, estatuko legeak euskal legean jasota ez dauden zenbait gai berri arautzen ditu, gurean jaso beharrekoak.

Hala, urtarrilaren 28ko 2/2011 Legeak, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa aldatzeari buruzkoak, Hauteskunde Lege Orokorraren beste zenbait artikulua aldatzen du hauteskunde administrazioaren eta hauteskunde prozeduraren hobekuntzaren ingurukoak, oinarritzko izaerakoak batzuk eta oinarritzko izaerarik gabekoak besteak. Aldatutako artikuluek gai hauek ukitzen dituzte: hauteskunde-batzordearen ahalmen bateratzailea, hauteskunde batzordeek helegiteen gaineko epeak zehazteko gaitasuna, hautesmahaien eraketa, hauteskundeiei buruzko publizitate eta zabalkundea, hauteskundeiei buruzko informazioaren hedapena,



bozketa, eta hauteskunde-deia bigarrenkoz aurreratzeko baimena. Horiek guztiak Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko Legean jaso behar dira.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko Legeak jaso behar duen beste hobekuntza tekniko bat honakoa da: eurotara pasatzea orain arte pezetatan jasotako zenbateko guztiak, eta, bide batez, legean jasotako kopuruak euro konstanteetara eguneratzea. Kontuan hartuko du ere teknologia berrien erabilera hauteskunderetako dokumentazioa bitarteko elektronikoak erabiliz bete ahal izateko, baita izena aldatu duten zenbait organismoren nahiz erakunderen izena eguneratzea ere.

Era berean, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko Legeak Espainiako Konstituzio Auzitegiak hauteskunde batzordeen administrazio jardunaren legezkotasunaren gaineko kontrol judizialari buruz eta boto paperaren aldaezintasunari buruz sortutako dotrina jaso behar du, baita beste hauek ere: hauteskunde batzordearen erabakiak hautetsia izateko ezintasun kariei buruz, hauteskunde aldian egiten diren kanpaina instituzionalen xedea eta mugak, eta arlo hori arautzeko araubide zehatzaile bat egokitzea.

Halaber, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa aldatzen duen Legean jasotako beste aurreikuspen hau ere jasotzen da (3/2011 Lege Organikoa, urtarrilaren 28koa), alegia Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 6.2 b) artikuluan ezarritako baldintzetan kondenatutakoei sufragio pasiborako debekua ezartzearena –nahiz eta epaia irmoa ez izan- baldin eta epaiak hautetsia izateko inhabilitazioa ezartzen badu edo enplegu publikoa edo kargudun publikoa izateko eskubidea bertan behera uzten badu; izan ere, estatuko legeak oinarrizko izaera eman dio sufragio pasiborako debeku horri.

Bestalde, proiektuaren xedapen indargabetzaile berriak, indarrrik gabe uzten du, besteak beste, ekainaren 19ko 15/1998 Legean boto elektronikoari buruz araututakoa; izan ere, 15 urtez indarrean egon eta gero, oraindik ez da lortu sistema hori martxan jartzeko beharrezkoa den akordioa Legebiltzarrean, eta, beraz, badirudi ez dela aplikatuko.

Azkenik, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko Legearen aldaketak emakumearen aldeko ekintza positibo batzuk aurreikusten ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako euskal legearen esparruaren baitan, datozen hauteskunde autonomikoei begira hautes mahaietako kide izateko salbuespenak areagotzeko, hala nola haurdunaldi-egoera aurreratuan izatea eta edoskitzaro naturala.

Legearen aldaketa Xedapen Orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Legean araututakoaren arabera izapidetuko da (8/2003 Legea, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena).

Irizten da bidezkoak, manuzkoak eta/edo egokiak izan daitezkeela honako izapide eta txosten hauek:

- A.- Prestatze azterlanak
- B.- Hasierako agindua
- C.- Proiektuaren testuaren zirriborroa
- D.- Salletako izapideak:
 - › Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena



- › Memoria ekonomikoa (kostu-mozkinaren ebaluazioa, gastu publikoaren balioespena, ondorio ekonomikoak)
- › Genero-eraginaren ebaluazioa
- › Administrazio-kargen murrizketari buruzko txostena
- › Onespen agindua
- E.- Manuzko txosten eta entzunaldiak:
 - › Hizkuntza politikako Zuzendaritzaren txostena
 - › EMAKUNDEren txostena (4/2005 Legearen 2. artikulua, otsailaren 18koa, Gizonen eta Emakumeen berdintasunerako).
 - › Jendaurreko entzunaldia
 - › Eusko Jaurlaritzako gainerako Sailei entzunaldia ematea
- G.- Manuzko txosten eta entzunaldiak:
 - › Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena
 - › Aholku Batzorde Juridikoaren txostena

Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Aholku Batzorde Juridikoari txostena eskatu aurretik, memoria ekonomikoa eta prozedurari buruzko memoria laburra egingo da, espedientean jasoko direnak.

Hori guztia horrela izanik, honako hau

XEDATZEN DUT:

BAKARRA.- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko legea (5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa) aldatzeko proiektua izapidetzeko prozedurari hasiera ematea, Agindu honetan ezarritako irizpideekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko xxxren xxa

Estefanía Beltrán de Heredia Arroniz
Segurtasun sailburua